

Guztiok murgilduta gauden salbuespen egoera honen aurrean, eta honek izango duen iraupenaren ezjakintasunaren aurrean, honako erabaki hauek hartu ditugula jakinarazi nahi dugu:

Entzunaldietarako izen-ematearen epearen luzatzea: Ahal den neurrian, hautagai guztiei dagokien 2020 urteko entzunaldietan parte-hartze prozesua errazte aldera, izena emateko epea luzatu egin dugu, azken eguna apirilaren 8a izanik.

Entzunaldietako formatua: Salbuespen egoera honen aurrean, eta entzunaldiak aurrez-aurre egiteko ezintasuna dela eta, “modu birtualean” egingo dira. Horretarako, hautagai bakoitzak, Youtube edo beste plataforma batean igotako bideoaren lotura bidali beharko du. Nahitaezko obra (obra behartua) aldi bakar batean interpretatua izan beharko du bideoan eta, kasu honetan, pia noaren laguntzarik gabe. Era berean, nahitaezko edo behartutako orkestra pasarteak, beste esteka batean bidali beharko dira, pasarte guztiak biltzen dituen bideo bakar batean, eta bertan, aldi bakar batean interpretatutako pasarteak grabatu beharko dira. Aipatutako grabazioak, gutxienez metro bateko distantzia batetik grabatua izan beharko dute, ahalik eta ingurune isilenean. Guzti hau bidaltzeko azken eguna apirilaren 21a izango da. Aipatu materiala, honako helbidera helaraziko da:
info@egofundazioa.org

Emaitzak EGOren web gunean argitaratuko dira “Komunikazioak” atalean, beranduenez, maiatzaren 4ean.

*) Perkusio instrumentuen kasuan, eta egoera honetan dagokion grabazioa egiteko egon daitezkeen zailtasunak jakinik, jarraibideak dagokionean komunikatuko ditugu.